



SINATZAILEA

Arantzako Udaleko alkatea / Alcalde del Ayuntamiento de Arantzaz
SATURNINO LARRALDE IBARROLA
2025/01/10



Ayuntamiento de Arantzaz
Arantzazko Udala

NIF: P3102200G

INDUSTRIA, NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDIAK



SINATZAILEA

El Secretario de Arantzaz
NAGORE MADARIAGA IRIARTE
2025/01/10

2024-2025EKO KANPAINAN ARANTZAKO HERRI LURRETAN BURU BEHARREKO BASO LANEN PROIEKTUKO BURUITZA-ITSASZELAIETA PISTAKO OBRAREN ZATIA ZENBATEKO TXIKIKO KONTRATUETARAKO ARAUBIDEZ ESLEITZEKO PROZEDURA ERABILTZEKO AGINTZEN DUENA.

Ikusirik 2024-2025eko kanpainan Arantzako herri lurretan buru beharreko baso lanen proiektuan xedaturikoa.

Ikusirik Ingurumeneko zuzendari nagusiaren abenduaren 9ko 229/2024 Ebazpen bidez 2024-2025 kanpainako mendiko lanen dirulaguntza behin behinean ebatzi zela eta, horren arabera, azpiegiturei dagokion dirulaguntza ere eman dela (4. Neurria).

Ikusirik Arantzako Udaleko idazkariak 2024ko urriaren 24an egindako txosten juridikoan xedaturikoa.

Ikusirik Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikuluan xedaturikoa.

EBATZI DUT:

1) 2024-2025eko kanpainan Arantzako herri lurretan buru beharreko baso lanen proiektuko Buruitza-Itsaszelaieta pistako obraren zatia zenbateko txikiko kontratuetaarako araubidez esleitzeko prozedura erabiltzeko agintzea.

2) Mendiko lanen arloan aritzen diren enpresei baso berritzeen eta baso lanen obra egiteko aurrekontuak aurkezteko gonbidapena bidaltzea, ondorengo zehaztapenekin:

- Aurrekontua: 39.361,19 € (BEZa kanpo).
- Exekuzio epea: gehienez ere, 2025eko urriaren 1a.
- Proposamen ekonomikoak aurkezteko epea: 10 egun natural.
- Proposamenak aurkezteko helbidea: Arantzako Udaleko egoitza elektronikoa.

3) Arantzako Udaleko osoko eginen den hurrengo bilkuran Ebazpen honen berri ematea.



ARANTZA

Egiaztapen-aseguru kodea: 7CAA AAFT WNC2 7ZVC KX4K

Resolución Nº 2 de 10/01/2025 "2024-2025EKO KANPAIAKO MENDIKO LANEN AZPIEGITURAK KOPURU TXIKIKO KONTRATU BIDEZ ESLEITZEKO AGINTZEA." - SEGRA 57423

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.arantzaz.eus/> 1tik 1 orrialdea